



Segi-ren aurkako sarekada eskubideen urraketa larria da

Bart Euskal Herriko hainbat lekutan ustez SEGI erakundeko 34 gazteren atxilotzearen aurrean, STEE-EILASEk salaketa ozena adierazi nahi du. Sarekada hau beste zenbait kartzelaratzearekin hasitako bidean kokatzen da eta jarrera politiko oso bat legez kanpo uzteko ahaleaginean, "guztia da ETA" aitzakia ulertezinean. Eskubide zibil eta politikoen urraketa bat gehiago da eta egoera politikoa okertzea beste asmorik ez du, PSOE eta PPK elkarrekin daramaten estrategiaren barruan. Aldi berean, kanpaina mediatikoaren gainetik, atxilotutakoen errugabetasun-presuntzioa eta inkomunikaziorik eza eskatzen dugu.

Gure aldetik, euskal gatazkaren konponbiderako elkarrizketa dela bidea berretsi nahi dugu, giza eskubide guztien errespetuan, demokrazian sakonduz, indarkeria mota guztiak desagertuz eta euskal hiritarren hitza aitortuz. Bide honi ekiteko konpromezuarekin jarraituko dugu.

Euskal Herrian, 2009ko azaroaren 24an

STEE-EILASEko Batzorde Iraunkorra

ARABA: Eulogio Serdán 5

BIZKAIA: Nikolas Alcorta 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org